

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 68/2018 Foru Dekretua, abenduaren 21ekoa. Onestea gizarte eremuan lan sozietateak eta sozietate kooperatiboak sustatzeko eta eratzeko laguntza lerroaren oinarri arautzaileak eta deialdia, bai eta Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzea ere**

Epe ertainetik haragoko ikuspegia duten politika publikoen funtsezko atala da garapen jasangarriaren sustapena, kontuan hartuta hiru alderdiak, hots, ekonomia, gizartea eta ingurumena.

Arabako Foru Aldundiak ondo daki nolako garrantzia duten ekonomia eta enpresa jarduera guztietarako gizarte ekonomiaren arloko entitateek eta, zehazkiago, kooperatibek eta lan sozietateek, beren izaerarengatik beragatik, eta haien barruan, gizarte eremukoek. Azken hauen elementu definitzaileak dira haiek osatzen dituzten pertsonen ezaugarriak eta egiten dituzten gizarte jarduerak –zeinen barruan baitago emakume eta gizonen berdintasunaren sustapena– eta ingurumen jarduerak.

Laguntza hauen berri ahalik gehien zabaltzeko eta publikotasunaren, lehiaren, objektibotasunaren eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzeko, gizarte eremuan lan sozietateak eta sozietate kooperatiboak sustatzeko eta eratzeko laguntzak arautzen dituzten oinarriak eta laguntza horien deialdia ezartzen dira.

Laguntzak emateko prozedura lehia libre izango da. Prozedura hori honako arrazoi honengatik erabiliko da: eskaerak aurkezteko epealdia luzea da; eskaerak azkar ebatzi behar dira, proiektuen izaera dela eta ezinbestekoa da azkar erantzutea eta eskaera bakoitzari bere jarraipena egitea.

Halaber, ezartzen da gizarte ekonomia sustatzen diharduten entitateak entitate laguntzaile izan daitezkeela, xedapen honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta hala eskatzen badute, haiek entitate onuradun diren kooperatibak eta lan sozietateak sustatzen, eratzen eta abian jartzen lagundu dezaten, dirulaguntzaren funtsezko oinarria baita, bai eta eskaerak kudeatzen eta izapidetzen ere.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Hori dela eta, dauzkadan ahalmenak baliatuta eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuak proposatuta, hauxe

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea gizarte eremuan lan sozietateak eta sozietate kooperatiboak sustatzeko eta eratzeko lehia libreko araubidean ematen diren laguntzak arautzen dituzten oinarriak, zeinak dekretu honen I. eranskin gisa baitoaz.

Bigarrena. Onestea gizarte eremuan lan sozietateak eta sozietate kooperatiboak sustatzeko eta eratzeko laguntzen deialdi publikoa. Deialdi hori espedienteari lotuta dago eta Dekretu honen II. eranskina da.

Hirugarrena. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 29ko 821/2017 Erabakiaren bidez onartu zen Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren eranskina, ebazpen honekin batera III. eranskin moduan doan edukia gehituz.

Laugarrena. Deialdi honetako laguntzak Arabako Foru Aldundiaren gastuen aurrekontuko 2019ko ekitaldirako konpromiso kreditu honen kontura ordainduko dira: 18.3.19 taldea, "1.10298.1700.4790001 Gizarte eremuko kooperatibak eta lan sozietateak sortzea", gehienez ere 150.000 euroko zenbatekoaz orotara.

Bosgarrena. Entitate laguntzaileei emango zaien konpentsazio ekonomikoa, 50.000,00 eurotan jotzen dena, 2019ko ekitaldirako konpromiso kreditu honen kontura ordainduko da: 18.3.19 taldea, "1.10298.1700.2279901 Entitate laguntzaileak: kooperatibak eta lan sozietateak sortzea" (partida zabalgarria).

Seigarrena. Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuari eskumena ematen zaio deialdi hau zuzen garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro hartzeko eta erakunde kolaboratzaileekin hitzarmenak izenpetzeko.

Zazpigarrena. Foru Dekretu honek onetsitako oinarri arautzaileak eta deialdia ALHAOn argitaratuko dira eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dute indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2018eko abenduaren 21a

*Diputatu nagusia*

*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*

*Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta*

*Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*

*MARIA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO*

*Ekonomia Garapenaren zuzendaria*

*JAVIER HERNANDO GARCÍA*

## I. ERANSKINA

Gizarte eremuan lan sozietateak eta sozietate kooperatiboak sustatzeko eta eratzeko dirulaguntzak lehia libreko araubidean ematea arautzen duten oinarriak

### 1. oinarria. Xedea

Oinarri hauen xedea da gizarte eremuan lan sozietateak eta kooperatibak sustatzen eta eratzeko laguntzea, lehia libreko araubidean dirulaguntzak emanez, 11/2016 Foru Arauak (urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzena) 20.2 artikuluan arautzen duenaren arabera.

### 2. oinarria. Entitate onuradunak

2.1. Laguntza lerro honen onuradunak izan daitezke lan sozietate moduan nahiz kooperatiba moduan eratzeko diren gizarte ekonomiako entitateak, horien barnean direla irabazteko asmorik gabeko entitateak (elkarteak, fundazioak, eta abar) izatetik gizarte eremukoak diren eta 3. oinarriko jarduerak egiten dituzten gizarte ekonomiako enpresak izatera aldatzen direnak.

Entitateak gizarte eremukotzat hartzeko, ezinbestekoa izango da honako bi baldintza hauek bat betetzea:

a) Entitateko pertsonen ezaugarriak:

Eskaera aurkezten denean entitateko pertsonen erdiak gutxienez kasu hauetako batean egon behar dira:

- 35 urtetik beherakoak.
- Emakumeak.
- Baliabide ekonomiko gutxi, lanbidearteko gutxienerako soldata baino gutxiago, hain zuzen ere, sarrera guztiak batuta (salbuetsiak barne):

– PFEZen aitortpena aurkeztu behar izanez gero, edo nork bere borondatez aurkeztuz gero, eskaera aurkeztu aurretik aurkeztutako azken aitortpeneko zerga oinarri orokorra eta aurrezkiaren zerga oinarria zenbatuko dira, bai eta lanaren errentei aplikatutako hobariak ere.

– PFEZen aitortpena aurkeztu ez bada, beharrezkoa izan ez delako, eskaera aurkeztu aurretik itxitako azken ekitaldiko lanaren etekinen eta langabezia pentsioen eta sorospenen zenbateko gordina hartuko da kontuan.

- Gizarteratzeko eragozpenak izatea: toxikomano ohiak, kartzelan egondakoak edo tratu txarrak jasandako pertsonak (behar bezala egiaztatu beharko dute izaera hori).

- Guraso bakarreko familia bateko kidea izatea.

- Luzaroan lanik gabe egondakoak; deialdi honen ondorioetarako bakarrik, holakotzat hartuko dira enplegu bulegoan enplegu eskatzaile bezala duela 12 hilabetetik edo luzaroago eten-gabe inskribatuta daudenak. 90 egunetik beherako lanaldiek ez dute eteten inskripzioa.

- ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa daukatena.

- 45 urtetik gorako langabeak.

b) Egiten dituzten jarduerak:

- Laguntza zerbitzuak: osasun, hezkuntza, kultura, kirol, jolas edo aisialdiko jarduerak edo gizarte alderdi argia duten bestelako jarduerak.

- Ingurumen zerbitzuak.

2.2. Gainera, ezarritako laguntzak jasotzeko, honako baldintza hauek ere bete beharko dituzte entitate onuradunek:

a) Legez eratuta egon behar dira 2018ko urtarrilaren 1az geroztik eta erregistro egokietan inskribatuta egon behar dira.

b) Lan zentroa (edo zentroak) eta egoitza soziala eta fiskala Arabako Lurralde Historikoan egon behar dira.

c) Eskaera aurkezten denean alta emanda egon behar dira jarduera ekonomikoen gaineko zergan, laguntza eskatzen den jardueraren epigrafean, hain zuzen, eta, beharrezkoa izanez gero, Gizarte Segurantzaren inskribatuta egon behar dira.

Entitate onuradunek egunean egon beharko dute beren zerga eginbeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko eginbeharretan.

e) 11/2016 Foru Arauak (urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzena), 12. artikuluan ezartzen dituen baldintzak eta aplikatzekoak zaizkien gainerako arauak betetzea, hala nola epai irmo baten bidez kondenaturik ez egotea dirulaguntza eta laguntza publikoak lortzeko posibilitatea galtzera, horren barruan dagoela generoagatik edo sexu orientazioagatik diskriminazioa egin izana, etab.

### **3. oinarria. Dirulaguntza jaso dezaketen jarduera eta gastuak**

3.1. Diruz lagundu ahal izango dira onuradun diren lan sozietate edo kooperatiba berriak eratzeke eta abian jartzeko proiektuak.

3.2. Proiektu horien barruan, ondoko gastu hauek dira diruz laguntzekoak:

- Notario gastuak eta eraketa edo eraldakuntza erregistratzeko gastuak.

- Jarduera burutzeko egin beharreko erregistroen, ziurtapenen eta homologazioen gastuak.

Halaber, dirulaguntzarako onartuko dira eraketaren ondoko 12 hiletan egiten diren honako gastu hauek:

- Jarduera egiteko behar diren lokalen errentamenduen gastuak.

- Hasierako merkataritzako informazio, komunikazio eta marketin gastuak.

#### 4. oinarria. Entitate laguntzaileak

4.1. Entitate laguntzaileak izan daitezke Euskal Autonomia Erkidegoan kooperatibak eta lan sozietateak ordezkatzen edo sustatzen dituzten entitateak, baldin eta berezko nortasun juridikoa badute eta sozietate egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan badute. Horretarako, laguntzaile izatea eskatu behar dute eta beren sozietate xedea hauetako bat izan behar da: kooperatibak sustatzea (kooperatibaren eskaerak baino ezin izango dituzte izapidetu) edo lan sozietateak sustatzea (lan sozietatearen eskaerak baino ezin izango dituzte kudeatu). Hori guztia, gutxienez 5 urteko antzintasuna izanda.

4.2. 11/2016 Foru Arauak (urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzena) 15. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, entitate laguntzaileek lankidetzaren hitzarmen bat, gehienez ere lau urteko iraunaldia duena, izenpetu beharko dute Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailarekin, laguntzak ematen dituen organo bezala. Hartan, bere gain hartzen dituzten baldintzak eta betebeharrak arautuko dira, zeinen barruan baitago emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko konpromisoa. Oinarri hauei erantsita doa hitzarmen hori.

4.3. Entitate laguntzaileek deialdi honetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten lan sozietateak eta kooperatibak eratzeko eta abian jartzeko proiektuekin eta eskaerak kudeatzeko eta izapidetzeko lanekin zuzenean lotutako sustapen ekintzak egingo dituzte (enpresa plana prestatu, sozietatea eratzeko prozesuan lagundu eta enpresa kudeaketaren jarraipena egin eta aholkuak eman, doan), lan sozietateari edo kooperatibari eratzten denetik urtebetean enpresa jarduna mantentzen laguntzeko.

4.4. Entitate laguntzailea izateko eskaerak aurkezteko epealdia hamar egun baliaduneko izango da deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskaerarekin batera (II. eranskina) honako baldintza hauek betetzen dituela dioen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute (III. eranskina): deialdi honetako 4.1 artikuluko baldintzak eta 11/2016 Foru Arauak (urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzena) 5.1 artikuluan ezartzen dituen baldintzak. Ebazpen proposamena egin aurretik, eskatuko da esandako aitortzearen jasotzen diren datuak egiazkoak direla egiaztatzen duten agiriak aurkez daitezela gehienez ere hamar eguneko epean.

#### 5. oinarria. Laguntzen zenbatekoa eta mugak

5.1. Laguntzak lehia libreko prozedurari jarraituz emango direnez, funtsak eskaerak jaso ahal banatuko dira, eskaerak (ezarritako baldintzak betetzen dituztenak) aurkezten diren hurrenkeran aintzat hartuz, harik eta aurrekontu zuzkidura agortu arte. Lan sozietate edo kooperatiba berri bakoitzak dirulaguntzarako onartutako gastuen gutzirako zenbatekoa jasoko du (% 100), baina gehienez 10.000,00 euro proiektuko.

5.2. Honako kasu hauetan muga hori handiagoa izango da:

- Lan zentroa 20.000 biztanletik beherako Arabako Lurralde Historikoko udalerriri batean badago, 13.000,00 euro.
- Entitateko pertsonen erdiak gutxienez emakumeak badira, 13.000,00 euro.
- Lan zentroa 20.000 biztanletik beherako Arabako Lurralde Historikoko udalerriri batean badago eta entitateko pertsonen erdiak gutxienez emakumeak badira, 15.000,00 euro.

5.3. Proiektuak dirulaguntza jaso ahal izateko ezinbestekoa da dirulaguntzaren zenbatekoa 1.500,00 eurokoa izatea gutxienez.

5.4. Aurrekontuan 1.500,00 euro baino gutxiago geratzen direnean baliagarri, laguntza hauek ezarritako funtsa agortutzat joko da eta ez da onartuko beste eskaerarik.

5.5. Aurrekontuan baliagarri dagoen kopurua ez bada nahikoa entitate eskatzaile bati emateko aurrean azaldutako ehunekoaren eta mugen arabera dagokion dirulaguntza osoa, baliagarri dagoen kopurua adjudikatuko zaio.

5.6. Deialdi batean zenbait aurrekontu partida daudenean, saileko diputatu titularrari ematen zaio ahalmena, Balorazio Batzordeak egindako proposamenaren arabera, aurrekontu partida bakoitzari gordailututako funtsak berriro banatu ahal izateko, dagokion ebazpenaren bidez, baina, betiere, deialdiaren aurrekontu osoa errespetatu beharko da.

#### **6. oinarria. Jardunbidea bideratzeko eskumena duen organoa**

Prozeduraren instrukzioa Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saileko Ekonomia Garapenaren Zerbitzuak egingo du.

#### **7. oinarria. Eskaerak aurkezteko epea eta modua**

7.1. Entitate laguntzaile izatea lortu duten entitateak argitara emango dira Arabako Foru Aldundian webgunean [www.araba.eus](http://www.araba.eus) eta, une horretatik aurrera, dirulaguntzak eskatzen dituzten entitateek haietara jo ahal izango dute eskaerak aurkezteko, eta eskaerak non aurkeztu beharko diren zehaztuko da.

7.2. Eskaera orria erakunde laguntzaileetan eskuratu ahal izango da, eta honako agiri hauek aurkeztu beharko dira eskaera orriarekin batera:

- Entitatearen IFZren fotokopia.
- Sozietatea eratzeko eskritura, beraren estatutuak eta legezko ordezkariaren ahalmenen egiaztatzea.
- Laguntza eskatzen den jardueraren alta jarduera ekonomikoen gaineko zergan.
- Enpresa eta langileen alta Gizarte Segurantzaren edota LAABen, kasuan kasukoan.
- Eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dauzkala frogatzen duen ziurtagiria.
- Aurreikusitako gastuetatik dirulaguntzarako onartzen direnen laukia, zenbatekoak zehaztuta.
- 3. oinarrian gizarte eremuko entitatetzat hartzeko ezartzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Jada gauzatutako gastuen fakturak eta ordainagiriak, hala badagokio (jatorrizkoak eta fotokopiak).

7.3. Deialdian adieraziko den epean, erakunde laguntzaileek Arabako Foru Aldundian aurkeztu beharko dituzte agiri hauek, denak agiri emate bakarrean, eskaera espediente bakoitzeko:

- Entitate eskatzaileek aurkeztutako agiriak.
- Enpresa plana.
- Sozietatea eratzeko prozesuaren inguruko jardueri buruzko memoria xehatua.
- Jarraipen eta aholku plana, aplikatuko den metodologia zehazten duena.

Pertsonen buruzko datuak jasotzen dituzten formularioen barruan, sexua adierazi beharko da, eta garatutako prozesu guztian zehar sortutako informazioak sexuaren arabera bereizirik egon beharko du. Aurreko apartatuetan adierazitako dokumentazio guztiak hizkuntza modu ez sexistan erabili beharko du bere idazkeran.

#### **8. oinarria. Ebazpena eta jakinarazpena**

8.1. Foru Gobernu Kontseiluak ebazpena emango du erakunde laguntzaileak eskaera espediente bakoitza Foru Aldundian aurkeztu duenetik hiru hilabete pasatu baino lehen, eta urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, ezartzen duenarekin bat etorritik jakinaraziko da. Epealdi horretan ez bada ematen eta jakinarazten berariazko ebazpenik, eskaera ezetsitatzat jo ahal izango da; nolahi ere, Administrazioak berariazko ebazpena eman beharko du.

8.2. Ebazpenak administrazio bidea amaituko du. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan ezartzen duenaren arabera, ebazpenaren kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Diputatuen Kontseiluan hura jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen, edo bestela zuzenean aurkaratu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, jurisdikzio eskuduneari, jakinarazi eta hurrengo egunetik bi hilabete pasatu baino lehen.

### **9. oinarria. Dirulaguntzaren justifikazioa eta ordainketa**

9.1. Eskaeraren aldeko ebazpena eman ondoren, onartutako gastuetatik eskaerarekin batera justifikatu den zatiaren zenbatekoa ordainduko da. Gainerakoa, emandako laguntzaren guztirako heltzeko falta dena, justifikatu beharreko aurrerakin modura ordainduko da.

9.2. Baiezko ebazpena jakinarazi ondoko hamabi hileko epean, entitate onuradunek honako agiri hauek eman beharko dizkiete entitate laguntzaileei (jatorrizkoak eta fotokopiak):

- Onartutako gastuen fakturak eta ordainagiriak.
- Gainera, lokalen alokairuak sortutako gastuak direnean, alokairu kontratua.

9.3 Aurreko puntuan azaldutako agiriak jasotzen direnetik hilabete pasatu baino lehen entitate laguntzaileek dirulaguntza aplikatu den jardueri buruzko azken memoria xehatua aurkeztu beharko diote Ekonomia Garapenaren Zerbitzuari. Jatorrizko agiriak erkatutakoan, entitate laguntzailearen bitartez itzuliko zaizkie onuradunei.

9.4. Profesionalen fakturen kasuan, entitate onuradunak pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren kontura egin behar diren atxikipenen zenbatekoa ordaindu beharko du. Kasu horretan, justifikatu beharreko ordainketa egin beharra onartuko da eta Arabako Foru Aldundiaren arduraren izango da ordainketa horiek egiaztatzea eta bidezko justifikazio txostena egitea. Baldin eta dirulaguntza ordaindu ondoren egiaztatzen bada ez dela ordaindu egin beharreko atxikipenen zenbatekoa, aurreratutako kopurua itzultzeko eta hari dagozkion interesak ordaintzeko eskatuko da.

9.5. Fakturen ordainketa, dagokion banku transferentziaren bidez edo merkataritzako trafiko juridikoan pareko frogaren balioa duen beste agiri baten bidez justifikatuko da, betiere entitate ordaintzailea, onuraduna, zenbatekoa, ordainketa data eta kontzeptua zehaztuta.

9.6. Arau orokor gisa, ordainketen frogagiriak jatorrizkoak izan behar dira, edo bestela fotokopia konpultsatuak. Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa ez hortik gorakoa (edo horren kontrabalioa atzerriko monetetan).

9.7. Eskaera aurkeztu zen lekuan bertan aurkeztu beharko dira aurreko paragrafoetan adierazitako agiriak ere.

9.8. Epe horiek igaro eta aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu ez badira, edo aurkeztu beharreko guztia aurkeztu ez bada, dirulaguntza gutxitu edo baliogabe utziko da, kasua zein den.

9.9. Deialdiko dirulaguntzak jasotzen dituzten entitate onuradunek gastuen justifikazioak aurkeztu ondoren Ekonomia Garapenaren Zerbitzuak behar diren kontrol eta ebaluazio ekintzak egin ahal izango ditu emandako laguntzak aurreikusitako xedeetarako zuzen aplikatu direnez egiaztatzeko. Enpresa onuradunek eskatzen zaien informazio osagarri guztia aurkeztu beharko dute.

### **10. oinarria. Dirulaguntzen bateragarritasuna**

10.1. Deialdi honetan arautzen diren dirulaguntzak bateragarriak dira Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzak ekintzailetzarako ematen dituen laguntzekin.

10.2. Aurreko idatz zatian ezartzen dena gorabehera, deialdi honetan arautzen diren dirulaguntzak ezin dira bateratu xede bererako (eta gastu izaera berarekin) beste administrazio edo erakunde publiko batzuek edo entitate pribatuek ematen dituztenekin.

10.3. Eskaeran adierazi beharko da eskaera egin aurretik beste laguntzaren bat eskatu edo jaso den. Baldin eskaera egin ondoren jaso bada, ahal bezain laster jakinarazi behar zaio, idatziz, Ekonomia Garapenaren Zuzendaritzari.

#### **11. oinarria. Interpretazioa**

Ahalmena ematen zaio Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatuari oinarri hauen interpretazioaren inguruan sortzen den edozein zalantza ebazteko.

#### **12. oinarria. Enpresen deslokalizazioa**

Enpresen deslokalizazioari dagokionez, urriaren 19ko 11/2016 Foru Aginduak, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzenak, 43 – 46 bitarteko artikuluetan xedatzen duena aplikatuko dira.

#### **13. oinarria. Laguntza onartzea**

Laguntza ematearen jakinarazpena jaso ondoko 15 eguneko epealdian entitate onuradunak ez badio hari berariaz uko egiten, ebazpenean ezarritako baldintzekin onartzen duela ulertuko da.

#### **14. oinarria. Publikotasuna eta komunikazioa**

Entitate onuradun batek dirulaguntza aplikatutako jarduketan berri zabaltzeko ekintzarik eginez gero, Arabako Foru Aldundiak emandako finantzaketa aipatu beharko du zabalkunderako erabiltzen diren baliabide eta material guztietan; aipamen horietan kontuan eduki beharko ditu irudi korporatiboaz ematen zaizkion oharrak.

Zabalkunde ekintza horiek edozein motatako hizkuntza era ez-sexistan erabili beharko dute, eta genero estereotipo eta roletatik urrun dagoen irudia erakutsi.

#### **15. oinarria. Itzulketak**

15.1. Esleitutako dirulaguntzak itzuli beharko dira urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzenak, oinarri hauek eta aplikatzekoa den gainerako araudiak ezarritako kasuetan.

15.2. Dirulaguntza eta dagozkion berandutze interesak itzultzeko eskatu beharko da, baldin eta Arabako Foru Aldundiak jakiten badu erakunde onuradun batek beste dirulaguntza bat edo batzuk jaso dituela, emandakoarekin bateraezina direnak, eta ez diela uko egin behar den bezala.

#### **16. oinarria. Datu pertsonalen babesa**

16.1. Prozesu honetako datu pertsonalak Arabako Foru Aldundiaren jardueren erregistroko "Enpresentzako dirulaguntzak" fitxategian tratatuko dira. Fitxategi horri buruzko argibide guztiak hemen daude: [ERREGISTRORAKO LOTURA](#).

16.2. Tratamenduaren arduraduna: Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseilua.

16.3. Tratamenduaren xedea: oinarri hauen bidez araututako dirulaguntzak eta laguntzak kudeatzeko eta estatistikak eta azterlanak egiteko baino ez dira erabiliko sartutako datu pertsonalak. Zortzi urtez gordeko dira.

16.4. Tratamenduaren legitimazioa: interes publikokoa delako edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzeko eginkizun bat betetzea. 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, dirulaguntzen orokorra.

16.5. Datuen hartzaileak: Herri administrazioak eta Arabako Foru Aldundiaren sailak. Honako hauetan araututako lagapenak: abenduaren 9ko 19/2013 Legea, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa; urriaren 1eko 39/2015 Legea, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena; eta azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena.

16.6. Datuen tratamenduaren gaineko eskubideak: datuen titularrak edozein unetan gauzatu ahal izango du datuetan sartu, haiek zuzendu, deuseztatu, aurka egin eta mugatzeko eskubidea. Horretarako, eskaera egin beharko du, dela bertaratuta dela bidalketa eta jasotzea bermatzea ahalbidetzen duen beste edozein bideren bidez, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorraren bulegoetan (Probintzia plaza, z. g., behea, 01001 Gasteiz, Araba). 21.1. Tratamenduaren arduraduna: Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseilua (helbide elektronikoa: [desarrolloeconomico@araba.eus](mailto:desarrolloeconomico@araba.eus); tel.: 945 18 18 18).

“Datuk babesteko ordezkaria: Diputatu Nagusiaren Kabinetea (helbide elektronikoa: [dbo-dpd@araba.eus](mailto:dbo-dpd@araba.eus), tel: 945 18 18 18)”

### **17. oinarria. Araubide juridikoa**

Oinarri arautzaile hauen eta deialdi honen araubide juridikoa honako hauetan ezarritakoaren mendean dago: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzena, eta aplikatu beharreko gainerako arautegia.



**Lankidetzaren hitzarmena, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekararen Sailaren eta lan sozietateak eta sozietate kooperatiboak sustatzeko eta eratzeko laguntzak kudeatuko dituzten entitateen artekoa**

Vitoria-Gasteiz, 2018ko XXXXren XX(a).

PARTE HARTZEN DUTENAK

Alde batetik, Maria Pilar Garcia de Salazar Olano andrea, Arabako Foru Aldundiko diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekararen Saileko foru diputatua.

Bestetik, ..... andrea/jauna, ..... entitatearen legezko ordezkaria (ahalordea: .....).

Bakoitzak bere entitatearen izenean eta ordezkari izan jardun du. Hitzarmen hau sinatzeko behar den gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna aitortu dizkiote elkarri, eta hauxe

ADIERAZTEN DUTE

1. Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekararen Sailaren egitekoetako bat Lurraldeko jardun ekonomikoa sustatzea da.

2. Diputatuen Kontseiluaren XXXaren XXX(e) ko XXX/2018 Erabakiaren bidez gizarte eremuan lan sozietateak eta sozietate kooperatiboak sustatzeko eta eratzeko laguntzak arautzen dituzten oinarriak eta laguntza horien deialdia onartzen dira.

3. Aipatutako erabakiaren laugarren xedatze atalean eta 4. oinarri arautzailean jasotzen da erakunde laguntzaileek jardun dezaketela araudian eta deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten gizarte eremuko lan sozietateak eta kooperatiboak sustatzen, eratzten eta zaintzen.

Horregatik, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzenak, 15. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik, alderdiek lankidetzaren hitzarmen hau sinatzea hitzartu dute.

KLAUSULAK

Lehenengoa. Hitzarmen honen helburua da Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekararen Sailaren eta ..... entitatearen arteko lankidetzarako bidea finkatzea gizarte eremuan lan sozietateak eta sozietate kooperatiboak sustatzen eta eratzten laguntzeko.

Bigarrena. Entitate laguntzaileak Diputatuen Kontseiluaren XXX/2018 Erabakian ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten lan sozietateak eta kooperatiboak eratzeko eta abian jartzeko proiektuekin zuzenean lotutako sustapen ekintzak egingo ditu Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekararen Sailaren kontura. Besteak beste, enpresa plana prestatuko du, sozietatea eratzeko prozesuan lagunduko du eta enpresa kudeaketaren jarraipena egingo du eta aholkuak emango dizkio lan sozietateari edo kooperatibari eratzten denetik urtebetean enpresa jarduna mantentzen laguntzeko. Hori guztia doan izan beharko da erakunde onuradunentzat. Aipatutako ekintzek bete beharko dute 4/2005 Legeak (otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako) eta 3/2007 Lege Organikoak (martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako) xedatzen dutena. Erakunde laguntzaileek arretarako bulego bat, gutxienez, izan beharko dute Araban.

Hirugarrena. Erakunde laguntzaileak azkar egingo ditu aurretik adierazitako ekintzak, eskaerak heldu diren hurrenkera errespetatuz, haiek osorik beteta baldin badaude. Bete beharko dituzten epeak eta gainerako eginbeharrak laguntza lerro honen oinarri orokorrean ezartzen dira.

Laugarrena. Entitate laguntzaileak konpentsazio ekonomiko bat jasoko du, 4.500 eurokoa onartutako proiektu bakoitzeko. Ordainketa justifikatu beharreko aurrerakin gisa egingo da, eskaeraren aldeko ebazpena eman ondoren. Aurrerakina justifikatutzat emango da entitate laguntzaileak 9. oinarrian ezartzen diren baldintza guztiak betetzen dituzten bitartean.

Bosgarrena. Entitate laguntzaileak urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzenak, 11., 12. eta 14. artikuluetan ezartzen duena bete beharko du.

Seigarrena. Alderdiek datu pertsonalen babesaren inguruko araudia bete beharko dute azken onuradun diren entitateetatik lortutako datuekin, eta haiei datu horiek erabiltzeko behar diren baimen guztiak eskatu beharko dizkiete.

Zazpigarrena. Hitzarmen honek, esleituta dauzkaten proiektu guztien zaintza amaitu arte iraungo du, eta edozein kasutan lau urte gehienez ere. Hitzarmen honetako xedapenak alderdien arteko adostasunez alda daitezke, osorik edo zati bat.

Zortzigarrena. Hitzarmen hau suntsiarazteko kausa dira hitzarmenean ezarritako klausulak ez betetzea, eta orobat hitzarmenaren izaerari dagokion beste edozein kausa ere, indarrean den legerian jasota badago.

Eta adostasuna adierazteko, aldeek hitzarmen hau sinatzen dute bi aletan eta eragin bakararrekin, idazpuruan adierazitako leku eta datan.

**I. ERANSKINA - ERAKUNDEAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN  
BERDINTASUNAREKIN DUEN KONPROMISOAREN ADIERAZPENA**

..... jaunak/andreak,.....(r) en ordezkartzan,

AITORTZEN DU

LEHENENGOA. Ez ordezkutzen dudan erakundeak, ez ordezkutzen dudan erakundeko gobernu edo administrazio organoetako kide diren pertsona juridiko zein erakundeek, ez dutela egiten sexuagatiko zuzeneko eta/edo zeharkako bazterkeria egintzarik, kideak onartzeko prozesuetan edo funtzionamenduan, bat etorri Osasunaren Lege Orokorrak 13. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko berdintasun Legeak 24(2) artikuluan xedatutakoarekin.

BIGARRENA. Ez ni ez ordezkutzen dudan erakundea edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako kide diren inongo pertsona juridiko edo elkarte ez dela zigortua izan, ez arlo penalean ez administratiboan, sexua dela eta, inor baztertzearagatik, ez eta abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuan eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren xedapen gehigarrietako hamalaugarrenean gizonen eta emakumeen berdintasun arloan xedatutakoak urratzearagatik ere. Legegintzako errege dekretuak Gizarte Ordenaren Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratua onartzen du eta lege organikoak emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna. Hona hemen halako batzuk, besteak beste:

Vitoria-Gasteiz, .....

Izenpea: .....

## II. ERANSKINA

Gizarte eremuan lan sozietateak eta sozietate kooperatiboak sustatzeko eta eratzeko lehia libreko araubidean ematen diren laguntzen deialdia

1. ARTIKULUA. Deialdi hau arautzen dute gizarte eremuan lan sozietateak eta sozietate kooperatiboak sustatzeko eta eratzeko lehia libreko araubidean ematen diren laguntzak arautzen dituzten oinarriek, zeinak Erabakiaren I. eranskinean onetsi diren.

2. ARTIKULUA. Laguntza programa honen helburua eta betekizunak oinarri arautzaileek ezartzen dituztenak dira.

Erakunde onuradunek legez eraturik egon behar dute 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Gastu guztiek, diruz lagunduak izateko, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera eginak izan behar dute.

3. ARTIKULUA. Aurrekontu partidak eta gehieneko zenbateko osoa

Dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren gastuen aurrekontuko 2019ko ekitaldirako konpromiso kreditu honen kontura ordainduko dira: 18.3.19 taldea, "1.10298.1700.4790001 Gizarte eremuko kooperatibak eta lan sozietateak sortzea"; gehienez ere 150.000 euroko zenbatekoaz orotara (xedapen erreferentzia: 105-XXX/000).

Entitate laguntzaileei emango zaien konpentsazio ekonomikoa, 50.000,00 eurotan jotzen dena, 2019ko ekitaldirako konpromiso kreditu honen kontura ordainduko da: 18.3.19 taldea, "1.10298.1700.2279901 Entitate laguntzaileak: kooperatibak eta lan sozietateak sortzea" (partida zabalgarria), xedapen erreferentzia: 105-XXX/000.

4. ARTIKULUA. Eskabideak aurkezteko epea

2019ko azaroaren 29a baino lehen, erakunde kolaboratzaileek Arabako Foru Aldundiari aurkeztu beharko dizkiote 7.5 oinarri arautzailean adierazitako agiriak. Eskaera espediente bakoitzeko agiri guztiak aldi berean aurkeztu beharko dira.

Kontuan hartuta erakunde kolaboratzaileek eskaera Arabako Foru Aldundiari eman aurretik agirien zati bat prestatu behar dutela, eskatzaileek eskariak aurkezteko epea 2019ko urriaren 31n amaituko da.

Gainera, eta kontuan hartuta erakunde onuradunentzako funtsak mugatuak direla eta dirulaguntzak eskaerak jasotzen diren unearen arabera emango direla, ezetsi egingo dira funts horiek agortzen diren garaian ebazteke dauden eskaerak.

5. ARTIKULUA. Justifikatzeko epea

Onartutako gastuaren lehenengo ehuneko 50a justifikatzeko agiriak 2019ko abenduaren 30 baino lehen, egun hori barne, eman behar zaizkio Arabako Foru Aldundiari.